

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Jendaurrean jartzea 2025eko zabor tasaren matrikula eta jakinarazpen kolektiboaren kobrantza aldia

Zaborrak biltzeko zerbitzuaren tasa ordaindu behar dutenen 2025eko errolda egin eta udal honen idazkaritzan jarriko da jendaurrean hamabost egun balioduneko epean, ediktu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa dutenek hura aztertu eta egokitzat dauzkaten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Ediktu honek, era berean, erroldan jasota dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko egin-kizuna betetzen du, bat etorri Arabako Zergei buruzko Foru Arauak 98.3. artikuluan xedatutakoarekin.

I. Ordaintzeko aldia. 2025eko urriaren 12tik abenduaren 12ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, borondatezko epean kobratzeko prest egongo dira 2025eko zabor tasari dagozkion ordainagiriak. Borondatezko aldiko dirubilketa epea amaitu ondoren, betearazte aldia hasiko da zuzenean, ordaindu ez diren kuotetarako. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarquak eskatzea, Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu bidearen kostuak ere, hala badagokio.

Ordaintzeko tokia eta modua

Finantza erakundeetan helbideratutako ordainketak: Legutioko Udalak zuzenean kudeatuko du zordunketa, ordainketa helbideraturik dagoen finantza erakundeetako kontuetan, 2025eko abenduaren 12an.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (gaztigu oharrarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (Nire Ordainketa).

Gomendioak.

Bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, bai eta bizileku aldaketak ere, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Legutio, 2025eko irailaren 9a

Alkatea

NEREA BENGUA GARCÍA DE CORTÁZAR